Desde el cuajado de frutos hasta la maduración de los mismos, éstos padecen una serie de caídas que según su procedencia las clasificamos en CAIDAS FISIOLÓGICAS y CAIDAS ACCIDENTALES.

— CAIDAS FISIOLÓGICAS

- CAIDA DEL CUAJADO: Más que una caída de frutos, puede considerarse como una caída de residuos florales, flores sin fecundar y pequeños frutos mal cuajados.
- CAIDA DE JUNIO: Es una caída típica de competencia entre frutos que se produce generalmente al terminar la fase de multiplicación celular. Los frutos entran en esta época en competencia entre sí y con los brotes en activo crecimiento, se provoca que los frutos con menor n.º de semillas, los más atrasados en su desarrollo y los peor situados se desprendan y caigan.

Con esta caída, normalmente caen entre el 10 y 25% de los frutos y si no hay otros problemas suele ser hasta beneficioso, ya que se

eliminan los peores frutos en beneficio de los que al final van a tener un valor comercial alto.

El problema suele ser cuando a esta caída natural, se unen factores climáticos adversos y cuya consecuencia puede ser la pérdida de gran parte de la futura cosecha.

- CAIDA DE MADUREZ: Esta caída está provocada por la formación en el pedúnculo del fruto maduro de una capa llamada de Abscisión que interrumpe la conexión vascular fruto-árbol.

Es pues una caída casi natural y algunas variedades presentan más acentuada esta caída.

Los daños de esta caída se producen al golpearse con el suelo y quedar marcados, lo que hace menos comercial su venta y más difícil su conservación.

— CAIDAS ACCIDENTALES

- Por Causas Parasitarias: El ataque de enfermedades criptogámicas e insectos produce caídas alarmantes de frutos. En el caso de ataque de agusanado la caída puede ser casi total.
- Sequía Prolongada o Riego: Lluvias fuertes después de la sequía.
- Tormentas, granizos y vientos.

1.7.3. Composición química de algunos frutos

Fruto	Parte comestible analizada	Agua	Proteína	Fibra	Azúcares	Vit. C ácido ascórbico - mg.	m - c.
MANZANA	Sin piel ni corazón	84	0,25	2,2	11,4	5	m.
PERA	Sin piel ni corazón	83	0,25	2,5	10,8	4	m.
MELOCOTON	Con piel sin hueso	86	0,06	1,4	9,1	8	m.
ALBARICOQUE	Con piel sin hueso	86	0,60	2,1	6,7	7	m.
CIRUELA	Con piel sin hueso	84	0,60	2,1	9,6	3	m.
CEREZA	Con piel sin hueso	81	0,60	1,7	11,9	5	m.
UVAS	Con cáscara sin pepitas	79	0,60	0,9	16,1	4	m.
NARANJA	Sin piel sin pepitas	86	0,82	2	8,5	50	c.

m = predomina como ácido orgánico el MALICO.
c = predomina como ácido orgánico el CITRICO.

1.8. FASES DE LA VIDA DEL ARBOL

Cuando hemos definido el árbol le hemos dado el carácter de **perenne**, esto quiere decir que tiene muchos años de vida.

El número de años que tiene un árbol en su medio natural, se llama longevidad del árbol.

La longevidad de un árbol depende de la especie que se trate, así un melocotón rara vez sobrepasa los 20-25 años y por contra hay olivos que tienen varios cientos de años.

Las fases típicas en la vida del árbol son:

- Juventud.
- Entrada en producción.
- Plena producción.
- Envejecimiento.
- Decrepitud.

1.8.1. Fase de juventud

Comprende los años de vida que van desde que se planta o nace el árbol, hasta que comienza a dar unas flores. Es un período de intenso crecimiento vegetativo. Generalmente tiene una duración de 2 a 7 años.

1.8.2. Fase de entrada en producción

Abarca una serie de años, de 3 a 10, durante los cuales el ár-

bol continúa creciendo intensamente, pero poco a poco y en forma progresiva empieza a producir frutos. En este período los gastos de cultivo son superiores a los ingresos obtenidos.

1.8.3. Fase de plena producción

Comprende el período de equilibrio del árbol. El árbol mantiene un crecimiento vegetativo que le permite renovar madera, pero a la vez mantiene una producción regular y estable. La duración de este período depende de la especie y de los cuidados que el árbol reciba, pero a título de orientación se puede dar para el manzano 20-30 años.

1.8.4. Fase de envejecimiento

Durante este período, el crecimiento vegetativo es cada vez menor, la floración puede llegar a ser incluso superior que en el período de plena producción, pero por contra la fructificación es cada vez más baja, a la vez que disminuye la calidad del fruto. Esta fase dura bastantes años, y unos fuertes abonados junto con podas, puede permitir mantenerlos con unas producciones aceptables.

1.8.5. Fase de decrepitud

Comprende los últimos años de vida del árbol. No hay ningún crecimiento vegetativo y la floración disminuye hasta anularse. La copa del árbol disminuye su volumen por roturas y desgarros de ramas y como consecuencia el árbol llega a su muerte natural.

Como resumen de las fases de la vida del árbol podemos deducir las siguientes consideraciones:

- El período improductivo o de poca producción (juventud + entrada en producción) hay que hacerlo lo más corto posible. Hoy día con sistemas intensivos, variedades adecuadas, empleo de hormonas, etc., se puede conseguir que solamente dure de 2-4 años.
- Como consecuencia del comentario anterior, el período de plena producción puede ser mayor, lo que nos permitirá amortizar rápidamente la plantación y ante un cambio de variedades (más productivas o con mejor mercado) u otro cultivo con futuro más interesante, poder decidir el arrancar o seguir con la plantación.


1.2 ZUREZKO ETA FRUTUMAILLE DIRAN ERNEMUNIEN BURUTZEA

Udaberri batean, zurezko edo egurrezko ernemuin bati begira jartzen gera, eta ernemuin ori azitzen eta loditzen dijoala ikusten degu, ezkatak irekitzen dira, eta illauna agertzen da; momentu ortan ernemuinaren txotx-muturra luzatu egiten da eta aurreneko ostoak agertzen dira. Aurreneko burutze oni txortena esan litzaioke; txorten au, bere garaialdian aurrera azitzen dijoan bezela, ostoak eta ernemuinak sortzen ditu, belar antzeko edo txotx-antzeko buruxka bat gertatzen da eta buruxka oni KIMUA esaten zaio.

“Landare-azitze” deritzaion aurreneko garaialdia bukatzean, kimuak txotx biurtzen dira, ostoak erori egiten dira (ostoa galitzen duten fruta-arboletan), eta ernemuinak nabarmenago agertzen dira. Geldialdiko garai ortan, kimuak adarxka izena aritzen dute.

Urrengo udaberria iristean, eta arbolaren landare-bizitza berri-tzean, adarxkako ernemuinak, kimu berriak erne arazten ditu. Au guztia adarxka bere loditasunik aundienean dagcanarekin batera eta egurtsuen dagoenean gertatzen da; une ortan, ordura arte adarxka zonari adarra esango zaio.

Azitik sortzen dan aurreneko kimua aunditzean, bai eta ernemuina azitzean ere (ernemuin au azitik sortutakoa edota adarretik sortutakoa izan liteke), aurreneko adarra etortzen da; geienetan zutikakoa izaten da eta urteen buruan loditzen dijoan neurrian, arbolaren ge-



rriondo biurtzen da.

1.2.1. Adarxka-motak

1.2.1.1. Adarxka landaretsuak

Beroietatik sortzen diran ernemuinak “landaretsuak” diran adarxkari esaten diegu “adarxka landaretsuak”. Agertzen duten sendotasunari begiratuaz onela sailkatu genitzake:

— **Zurezko adarxkak:** Adarxkak auen luzekoa eta loditasuna arbol-mota bakoitzean ez berdiña da; normaltasunean azitzen diranean, beren aunditasuna 0,5 eta 1,5 m. bitartekoa izaten da, eta adarrendoan duten loditasuna edo borobiltasuna 1-2 zentimetrokoa.

— **Adarxka xurgatzaillea:** Iru garri azitzen dan adarxkari izaten da au; iru metrotik gorantz izaten da eta adarrendoan daraman borobil-neurria iru zentimetrotik gorakoa izaten da. Zutikakoa izan ohi da geienetan.

- **Dardoa:** Oso adarxka motza izaten da, zentimetro bat baino txikiagoa, eta ernemuin bat bakarra izan oi du muturrean.
- **Adarxka aurreratua:** Alboko ernemuinetik ernetzen dan adarxka da au (urte berean, kimuaren alboko ernemuinak beste kimu bat sortzen du).

1.2.1.2. Adarxka frutu-emailleak

Beren ernemuin bat, bi edo guztiak loredunak diran adarxkak dira auek. Onela sailkatzen dira:

- **Adarxka naastua:** Zureskoaren antzekoa, alboko ernemuin loredun batzurekin.
- **Chifona:** Brindillaren antzekoa: Bere muturreko ernemuina zureskoa da eta alboko guztiak loredunak. Alea ezurrarekin duten arboletan agertzen da bereiziki (muxika).
- **Brindilla koroiduna:** Brindillaren antzekoa, baiña muturreko ernemuina loreduna

dauka.

- **Maiatzeko adarxka:** Chifonaren antzekoa baiña motxagoa. 5-10 zentimetro luzean izaten du. Alea ezurrarekin duten arboletan ateratzen da bereiziki.
- **Dardo koroiduna:** Muturreko ernemuina loredun biurtu dan dardoa da.
- **Larburda:** Luzatutako dardoa da (10 zentimetro); muturreko ernemuina loredun biurtu zaio. Pipitta duten arboletan agertzen da bereiziki.


1.2.2. Gerriondoaren, adarren eta adarxken egitekoa

Arbol baten gerriondoa edo adar bat saietsuz ebakitzen badegu, bost azal edo kapa borobil bata bestearen gainean itsatsiak bezela agertuko zaizkigu; erdi-muiñetik asiz, eta kanporaldera hartuz auek dira: muiña, zura, cambiun edo tartekoa, liber edo azal askatua eta gainazala.


Zura, gai gogor aritsu batez eta aska edo urbidez egiña dago (aska egurtsua); ura eta azkurria eramaten dute aska edo urbide auek (gesala); gesal au zaiñek xurgatzen dute. Gesal au ostotara iristen danean, ostoez izerdi biurtzen dute. Eta esan degun "liber" edo azal askatuan kokaturik dauden beste urbi-deetan zear zabaltzen da.

Egurrak dituen egitekorik garrantzitsuenen artean auek daukagu:

- **Indar-lanak:** Aleei eutsi, eta, eguraldiaren eta ingurugiroaren erasoei eutsi.
- **Gorputz-lanak:** Azkurriak batetik bestera eraman eta, kimuberritze aurretik arbolak beregan bear dituan gaiak alde aurretik jasota gorde.
- **Bizitzako-lanak:** Arnasa artu, izerdia bota eta klorofila-lana neurri txiki batean egin (naastu eta zikindua dagoan aizea garbitu, osigenoa aizetan garbi utzi, ikatza (carbonoa) beretzat xurgatuz).



1.3 ARBOLARI BURUZ BESTE JAKINGAI ARRUNTAK



1.3.1. Orriak edo ostoak

Zabalunez eta txortenez burtuak daude ostoak. Zabalunea esaten diogun ori ostoak duen alderdi zabala edo xaflatua da.

Txortena, berriz, ostoak erdigunean zear daraman ariaren luzapena da eta onen bidez adarxkari lotzen zaio.

Arbolak dituen zatietan lanik geiena egiten duena ostoa da.

Ostoak itzala egiten du, adarrak estalkiz bezela babesten ditu eguzkia erraifuairena eta adarren tartean jarrita.

Gesal edo izerdiaren zirkulazioari lagundu egiten dio eta beregan jasotzen ditu denboraldi baterako azkurri gaiak.

Orain artean esandakoez aparte, beste iru eginkizun oso garrantzitsuak betetzen ditu ostoak:

A. KLOROFILA-LANA EDO FOTOSINTESIS

Arbolak jasoak edo gordeak daramazkian ikatz-ur edo hidratos de carbono hoiak lantzea da lanbide au. Lanbide au ontan burutzen da: aizeak daraman ikatz-lurruna (gas carbónico) xurgatu, eta zaiñen bidez xurgatua daraman ura eta beste azkuriekin batera, eguzkiaren argiaren eragiñez, aizeako ikatza jaso eta osijenoa bota egiten dituzte, osteok.

Fotosintesis izeneko egintza orren burubidea ontatik zintzilik dago:

— Zenbat ur dagoan. Legortean fotosintesis ori geratu egiten da.

— Eguzkiaren argiak duen indarretik. Leku itzaltsuetan fotosintesis au motelagoa da.

— Arbolak zenbat klorofila daukan. Gaizki janaritutako arboletan fotosintesis au jaitsei egiten da.

B. ARNASA ARTZEA

Arnasa artzearen bidez (oxijenoa xurgatu eta ikatz-lurruna bota), fotosintesisen bidez jaso dituzten ikatz-uren zati bat erretzen dute osteok, eta orrela lortzen da arbolak azitzeko bear duan indar guztia. Arbolak gauzez eta egunez artzen du arnasa.

C. IZERDIDURA

Izerditzearen bidez arbolak ostotatik kanpora botatzen du, arbol-giarrea egin eta fotosintesis lana egin ondorean sobratzen zaion ura.

Arnasa artzean, arbolari sortzen zaion beroa oztutzen laguntzen dio izerdia botatzeak.

Izerdia botatzen etengabe aritzen da arbola, baita legortea dan garaian ere; legortealdian, arbol-giarretik, aleetatik eta ostotatik botatzen du izerdia; orregatik aleak ez dira azitzen; aleak erori egiten dira batzutan eta ostoak eta kimuak zimelduak bezela agertzen dira.

1.3.2. Loreak



Landareen sortzaillea dan zatia dala lorea esan genzake.

1.3.3. Frutua-alea

Azkarri edo arraultz ernaldua dala frutua esan genzake.

Frutua edo alea onela burutzen da: lore-zilletik loraxakira erortzen da lore-autsa, eta, ernemintzen da eta loreauts-bidea egiten du; ernemindutako loreautsa, azkarri edo arrauztegira iristen da lore-orratzean barna; loreauts-bidea zabaldu egiten da lore-autsa pasatzeko; an ernaldu egiten da, eta nabarmen agertzen da, arrauztegia azi egiten bait da.

Iru zati ditu frutuak: kanpoalkekoa edo azala, "EPICARPIO" du izena; barru barrukoa edo mui-nekoa; onek aziak estaltzen ditu; "ENDOCARPIO" du izena; erdikoa edo tartekoa, jatekoa dana. "MESOCARPIO" du izena.



1.4

FRUTA-ARBOLEN URTEKO AZIALDIA

Gure lurraldetan ditugun fruta-arbol mota guztietan, sendoxeago edo arinxoago, baiña alkarren artean oso bereixitako bi garaialdi agertzen dira urtearen buruan: **Negu-garaiko atsedentaldia** eta **arbola lanean ari deneko urtegarai**.

1.4.1. Negu-garaiko atsedentaldia

Udazkeneko azken-zatia eta negua artzen ditu garaialdi onek, eta askotan udaberriaren asiera ingurura arte luzatzen da.

Garaialdi ontan geldi egoten da arbolaren bizitza eta ez azi eta ez loratu egiten da, naiz eta giroa goxoa eta epeltsua izan.

Beste gorputz-ekintza batzuk lanean ari litezke, geldiro eta indar aundi gabe, atsedentaldi onen asieran eta azken-aldian: zaiñek xurgatze-lana eta arnasa artzea, esate baterako. Garai

ontan, ostoa erortzen zaien arbola-motak, ostorik gabe, erantzita bezela geratzen dira; ostoa iraunkorreko arbola-motak ez dute ostorik galtzen baiña ez dute iñolako lanik egiten.

1.4.2. Arbola lanean ari deneko garaialdia

Neguaren azken aldera edo udaberriaren asieran arbola piztu dala eta lanean asi dela adierazten duten ezaugarriak agertzen diranetik, arbolaren ekintza bukatzen dan arte luzatzen da garaialdi au, udazkenaren bukaera ingururaño, ain zuzen.


Garaialdi ontan indar guztiz betetzen ditu arbolak bere gorputz-lanak, eta ekintza ori, kimuak eta adarrak aritzean, adarrak eta gerriondoa loditzean, loreak eta aleak agertzen eta aleak azitzean nabarmentzen da.

Garaialdi guzti onen zear, arbolak lurrez gaiñetik dituan alderdi denak —ernemuiñak, kimuak, loreak, aleak etabar— itxura ezberdiñak agertzen dituzte.

Arbola bere barruan lanean asitela adierazten duan ageriko leendabiziko ezaugarria kimuen azitzea edo potzolutzea da.

Fruta-arbola-mota geienetan, lorerako ernemuinak egurrezkoak baño leenago asten dira azitzen. Ernemuina babesten duten orriak eta ezkatat bereizi eta banakatu egiten dira, eta illauna agertzen da. Ernemuinak egiten duen aldaketa oni illaunaldia deritzaio.

Une ontatik aurrera, zurezko eta lorezko ernemuinen azitzea ezberdiña gertatzen da; zurezkoak arbol-gaia edo egurra sortzen dute; lorezkoak berriz loretu eta ale biurtzen dira.



1.4.3. Arbolaren landare-lanaren aldia edo zikloa

Udaberria aurrera dijoan neurrian, illauntzea bizkortu egiten da; zortzi edo hamar egunean ezkatat eta orriak erabat banatzen dira eta aurreneko orriak eta aurreneko txortena agertzen dira. **KIMUBERRITZEA** deritzaio egoera oni.

Erne ondorengo denboraldian, landarea indar aundiz azitzen da, giroa gero eta geiago berotzen dalako, eguna luzatzearekin argia ordu geiagotan artzen dualako etabar; guzti onen eragiekin, kimuak luzatu, alboko ernemuiñak atera eta ostoa leeritzen dira...

Landareak garai ontan agertzen duan azitze edo prozesu oni, **udaberriko azkuntza** deritzaio, eta garaialdi ontan, kimuek beren guztizko luzetasunaren % 60-70 luzatzen dira. Udaberriko azkuntza-aldia udagaraiean bukatzen da, eguraldiaren berotasuna 30 gradutik gora iristen dan garaiean. Garai ontan landareak (arbolak) ez du azitzen jarraitzen eta egoera orri **udako geldialdia** esaten diogu, eta geldialdi au, bero aundiak izateaz aparte, lurra ezetasunik ez daukalako gertatzen da.

Udagaraia bukatzean, bigarren ernealdi edo azialdia sortaraziko duan giro egokia agertzen

da; **udazkeneko ernealdia** esaten diogu oni; udazkeneko kimuberritze au, udaberrikoa baño laburragoa izaten da, eta **udazkeneko geldialdia** deitzen diogunarekin bukatzen da.

Udazkeneko geldialdi ontatik aurrera, dalako "fotosintesis" edo argilanak indarra galtzen du, zura zurbiltzen asten da, azkurri-gaiak lekualdatzen asten dira, eta ostoa erorialdiko egoerara sartzen da arbola; **ostoa erortzea** da arbolaren neguko geldialdiaren asiera.

Zain-sarearen lanaldi-garaia edo zikloa, zoruz gora dagoan arbol-aldearena baño zerbait luzeagoa izaten da. Zaiñak lurrazpian arkitzen diran tokian, 50-60 zentimetro beera, azten asteko bearrezkoa den gutxienezko tenperatura, ernemuiñetan baño leen iristen da zaiñentzat udaberrian eta ernemuiñetan baño geiago luzatzen da udazkenean.

Beraz, illauna atera baño 2-3 aste aurretik asten dira zaiñak lanean, eta, ostoa erori ondorean, 2-3 aste geiago irauten dute lanean zaiñak.

1.4.4. Lorealdiak eta frutualdia

Loretarako diran ernemuiñen ateratzearekin batera asten da, eta, ernemuiñ auen illauntzea, zurezko ernemuiñen illauntzea

baño leenago gertatzen da geienetan.

Illaunketa gertatzen danetik aurrera, egoera-aldi ugari (estados fenológicos) aldatzen ditu loretarako ernemuiñak. Laburki esanda, auek izango lirake:

— PIPORTA BERDEA:

Loreazpiko ostoz inguratua agertzen da lorea.

— PIPORTA ARROXA:

Loreosten muturra agertzen asten da.

— LORETAN BETE BETEAN:

Lorea zabal zabalik agertzen da bere lore-zill eta lore-etztenekin.

— LORE OSTOEN ERORTZEA:

Ernaldura gertatzen danean lore-ostoa erori egiten dira.

— ALEA ARTUA:

Ale txiki bat ikusten da.

Egoera auek irauten duten denboraldi orren barruan (10-30 egun), lore-autsen lekualdaketa (polinizazioa), ernemintzea, loreauts-bidearen zabaltzea, ernalketa eta alea artzea burutzen dira.

Alea azitzen dijoan neurrian, fruta bakoitzak berari dagozkion kerua, kolorea eta usan berezia artzen ditu, eta **eldu edo omotu** egiten da.

1.5

LORATZEAREN ETORBIDEA

1.5.1. Loreautsaren leku-aldaketa

Lore-zilleko koskoilletatik lore-ezteneko loraxakira loreautsaren pikorrak egiten duten leku-aldatzeari esaten diogu "polinizazioa" edo leku-aldatzea. Lore-zillak eta lore-eztena lore berarenak badira, loreak bere burua polinizatu edo austutzen du; arbol bereko baiña lore ezberdiñetakoak badira, edota arbol ezberdiñetako loreenak badira, "dicogama" edo bata bestea austutzea gertatzen da.

1.5.2. Ernardura

Ernardura burutu aurretik, bi gertakizun edo fenomeno gertatzen dira ernaldura orrekin zerikusia dutenak:

— **Loreauts-pikorra ernemindu egiten da:** Auts-naaste edo polinizazioa gertatu ondorengo 12 eta 36 orduren tartean gertatzen da ernemintze au, eta au inguru-giroaren edo temperaturaren baitan egoten da. Otzbero edo giro egokia 10 eta 30 gradu tarteko ori da; girorik bikaiñena 20 eta 25 gradu tarteko otzberoa da. 5 graduz beetik edo 35 gradutik goitik danean otzbero ori, ernemintzerik ez da gertatzen, eziñezko gertatzen da.

— **Autsbidearen azitzea:** Loreorratzean gertatzen da zabalte au ernemintzearen ondoren. Orretarako otzbero edo temperaturarik egokienak, ernemintzeko bear dutela esan ditugun antzekoak dira. Giro onen barruan, loreorratza egun batetik zazpi egun tartean iristen da arrautzategi edo azka-

rrira; landare-mota bakoi-tzak bere tarte berezia du aipatutako denboraldi onen barruan.

Bero aundiz gertatzen diran azitze bizkorregiek edo otz aundiz gertatzen diran azitze geldiegiek, akats aundiko ernaldurak ekartzen dituzte.

Prozesu edo ibilbide onen azken-pausoa da ernaldura; ondorean gertatzen dan zeluten ugaritzea oso indartsua izaten da, eta arrautzategia azitzen ari dala ikusten dan garaiean, esan liteke ernaldura burutu dala (alea artu du).

1.5.3. Partenokarpia

Berezko joeraz edo beste edo-zeren eragiñez, fruta-arboletan askotan ateratzen dira azirik gabeko aleak, ernalketarik izan ez dalako, edota ernemiña il egin dalako. Frutu edo ale auei "PARTENOKARPIKOAK" esaten zaie, eta platanondoak, piñak eta pikuondo-mota batzuk ematen dituzte orrelako aleak. Sagarrondoak, udareondoak eta ale ezurdunak dituzten beste arbolen batzuk ere, azirik gabeko aleak sortu oi dituzte noizbeinka.

1.5.4. Bere buruaren ernaltzaille, bere buruarentzat aketz

"Autofértilis" edo **bere buruaren ernaltzaille** esaten zaie, arbol bereko loreak, bertako loreen autsez ernaltzeko gauza diren arbolei. Lanbide au bere loreekin egiteko gauza ez diren arbolei, "autoestériles" edo **bere buruarekin aketz**, deitzen zaie.

Bertako loreekin bere loreak ernaltzeko gauza ez diran arbo-

lak, beste bateko lore-autsa eskatzen du, aleak sortu bear badute; mota bateko lore-autsa beste mota bateko loreak ernaltzeko gauza bada, **elkarren-ernaltzaille** deitzen zaie, eta orretarako gauza ez badira **elkarren artean aketz** (antzu) deitzen zaie.

Arboldegi batean auts naasketa egokia gerta dedin, beste mota batzutako arbolak aldatu bearra gertatzen danean. **Auts-naastegurutzatua** esaten zaio.

1.5.5. Akeztasunaren arrazoiak

Gauza batengatik bakarrik ez da gertatzen, geienetan, akeztasuna; arrazoibide bat baño geiago izaten dira.

Aipagarrienak auek ditugu:

a) JATORRIKOAK:

Jatorritik datozen akatsak zuzentzea eziñezkoa da, eta akats aue artean auek bereiziko genituzke: Loreauts-pikorrarene ernal-indar txikiak; arrautzatxoan ondaketa. Jatorri-indarrari dagokionez onela sailkatu genitzake fruta-arbolak:

● SAGARRONDOA:

Sagarrondoetan, auts-naasketa edo polinizazioa ondoregiten dutenak: Golden Belleza de Roma, Starking Mc Intosh, Verde Doncella Erreginsagarren erregiña.

Auts-naasketa gaizki egiten dutenak: Kanadako errege-sagar zuria, Winesap.

● UDAREONDOA:

Auts-naasketa ona dutenak: Mantekosa Giffard, Mante-

kosa Hardy, Mantekosa Precoz Moretini, Limoneroa, Williams, Decana del Comice, Conferencia, Passa Crassana.

Auts-naasketa txarra dutenak: Ercolini, Roma, Blanca de Aranjuez.

● **MUXIKAONDOAK:**

Erabiltzen diran guztiak beren buruen ernaltzailleak dira.

● **GEREZIONDOA ETA ARANONDOA:**

Gereziondo eta aranondo guztiekin auts-naaste gurutadura joa bearra dago.

b) **BEREN TANKERA EDO MORFOLOGIATIK DATOZENAK:**

Zuzentzen oso zailak dira, beren jatorrian oinarrizten bait dira. Gai ontan alderdi auek bereziko genituzke: lore-zilla baño lore-orratza luzeagoa edukitzea, lore-ats gutxi zortzea, lore zilla eta lore-eztena garai ezberdinetan eltzea edo omotzea.

c) **GIROARI DAGOKIONAK:**

Giroaren aldetik eragiña duten alderdi guztietan garrantzirik aundiena **otz-beroa**rena da. Lore-garaierako egokia litzakeen otz-beroa 10-30 graduen tarteko beroa da; girorik onen onena, berri, 20-25 gradu tarteko otz-beroa da.

10 graduz azpiko otza bada, lore-atsaren ernemintzea asko jaisten da, eta loreats-bidearen azitzea oso geldia gertatzen da orrelako otzarekin.

Era berean, 30 graduz goiko beroak, loreats - bidearen azitzea bizkorregia egiten du, eta leertzera iritsi liteke.

Oso arrizku aundikoak dira 0 gradutik beeragoko otzak batez ere emekientzat (lore-eztenentzat). 1 eta 6 gradu tarteko otza danean, lorea zenbateraino aurreratua dagoan, lore-zati emekiak il egiten dira.

Euria da, auts-naaste eta ernalduaren gain eragiñ aundia duan beste gauza bat.

Euria ugarigoa danean, frutazaleek "lore-irristatzea" esaten diogun ori gertatzen da. Lore-irristatzen onez gainera, beste kalte auek ekartzeri ditu euriak geienetan:

- Erleen eta beste xomoroen ibillera edo egaldia urritu egiten da.
- Lore-atsaren pikorrak lurrera botatzen ditu euriak.
- Ernemindu baño leen, loraxakietatik lore-atsa garbitu egiten du.

Aizeko ezetasuna: Loratzearen gain eragin aundia du aizeko ezetasunak. Beroa aundia eta ezetasuna txikia danean, loraxakia igartu egiten da, etalore-atsaren pikorra ez zaio itsasten; orduan ez da ernemintzen.

Aizea: Aizea da arboletako loratze on batekin zerikusi aundia duan beste gauza bat. Aize legorra eta bero aundia biek batera diranean, loraxakiak legortu egiten dira, urez ustutzen dira. Aizea aundia danean, erleen eta beste xomoroen joan-eto-

rriak urritu edo moztu egiten dira, eta lorearen erortzea etorri liteke.

d) **LANDAREAREN ELIKA-GAIK:**

Landareari alimentua, bizi-gaia, elika-gaia falta bazaio, arbolak loratze-bidean bere ondorioak izaten ditu; izan ere, landareak gordeta daukan elika-gai hidrokarbonatuetatik zintzilik bait dago lorearen azitzea. Loratze-bidean eragiñik aundiena dutela diruditen gaiak auek dira: Nitrogenoa, Boroa eta Magnesioa. Or ikusten da zenbateraino dan onurakor lurrari nitrogenoa naastea ki-muak azitzeko.

e) **BATEKO ETA BESTEKO ERAGIÑAK:**


Alearen azitzea arriskuan jartzen duten gorabeerak gerta litezke bein baño geiagotan. Auek dira, baitipat, gerta litezkeenak:

- Lore-ataletan sortzen diran izurriak eta gaitzak.
- Garai ortan erabiltzen diran xomorro - iltzailleek sortzen duten landare-pozoiketa.
- Landareak gaizki zaintzea: beranduegi iñaustea, loretan daudenean nitrogenoa botatzea etabar.

1.5.6. Polinizazio eta ernaldura ona lortzeko konsejuak

- a) Fruta-arboldegui batean, mota bakarreko landareae beñere ez aldatu. Adibidez: sagasti batean sagar-mota bakarreko arbolak bakarrik ez jarri; sagar-mota bat baño geiago jarri.

- b) Erabiltzen dan fruta-arbol nagusiaren sailleko bi polinizatzaile -mota erabiltzea egokiagoa da.
- c) Aukeratzen diran landare-motak, garai berean loratu bear dute.
- d) Autselfaille edo polinizatzaile-motako arbolak, arboldegi guztian daudeneko % 10 eta % 20 tartean jarri bear dute.
- e) Arbol baten arteko eta gertuen daukan autselfaltzailearen arteko tartea, 40 metro baño geiagokoa ez du izan bear.
- f) Elkarren artean ernaltzen diran arbolak buruz liburuetan agertzen diran argi-bideak, adierazbide besterik ez dira. Leku bakoitzean ikusi bearrekoa da landare-mota bakoitzak alkarren artean ernaltzeko duan alderdia.
- g) Arboldegi duan hektarea bakoitzeko 1-6 erlauntza edukitzea oso gomendagarria da.
- h) Arbola loretan dagoenean erabiltzen diran xomorrotzaileak, garbiak izan bear dute, erleak ilko dituan pozokirik naastu gabekoak.
- i) Arbola egoki eta osotasunean loratu dedin, ardura aundiz eta garai onean egin bear dute arbolarekiko begiratzeak, ongarritzeak, inausketak etabar.



Arboldegi batean gurregun jeneralki erabiltzen dan autselfaltzaileen antolabidea.

1.6 LOREAK DITUAN EGOERA-ALDIAK

1.6. LOREAK DITUAN EGOERA-ALDIAK

orealdi batek, kimu-leertzetik lea artzen duan bitartean izan dituan egoera edo aldi ezberdiak ezagutzeak, gero eta arrantzi aundiagoa du; egoera-aldi oiek ezagutzeak, ondoren bertuko ditugun alderdi auek argitzeko bidea ematen bait di-
u:


Arbolak duan azitze-indarra (desarrolloa) eta jasan dezakean giroa konparatu.

Zoruak berak (lurrak) ongarritzeak eta arbola zainzteko erabiltzen diran teknikabideak arbolaren gain zer nolako ondorioak dituzten ezagutu.

Landarearen egoera berezia edo sensibilitatzea kontuan hartuz, xomorro itsaskorak iltzeko garairik egokiena danean senda-gaiak eta xomorroiitzaileak erabili.

Arbolatako gaitzen eta izurrien a'orreak lana egiten duten Erakunde guztiek, gaurregun, arbolaren egoera kontuan artzen dute tratatubideak erabiltzeko oarrak ematerakoan; garai edo egun jakin batzuei begira ez dira egoten.

Arboldegiko landare nagusien artetik autzabaltzaillemota bat edo geiago aukatze bidea ematen zaigu.



1.6.1. Eredu-moldeak

a) PIPITOAREKIKO ALEA DUTEN FRUTA ARBOLAK

- A. NEGUKO KIMUA.
- B. KIMU PUZTUA (azia).
- C. KIMU EDO BOTTOI PUZTUAREN ZABALTZEA.
- D. LORE-KIMUEN AGERTZEA (ezkatak bereizten dira).

E. UNE GORRIAK. Lore-azalek lore-ostoa agerian uzten dituzte.

F. LOREA ZABALTZEN DA.

F2. LOREA BETE BETEAN.

G. AURRENEKO LORE - OSTOEN ERORTZEA.

H. LORE-OSTO GUZTIEN ERORTZEA.

I. ALEA ARTU DA.

J. ALEA AZITZEN ARI DA.

b) **EZURRAREKIKO ALEA DUTEN FRUTA ARBOLAK**

- A. NEGUKO KIMUA.
- B. KIMU PUZTUA (azia).
- C. LORE-POTTOKAK gerezian eta aranondoan; eta muxikaondoari lore-azalak agertzen zaizkio.
- D. LORE AZALAK AGERTZEN ZAIZKIO gereziondoari eta aranondoari, eta LORE-OSTOAK muxikaondoari.
- E. LORE-ZILLAK IKUSTEN DITTA (Lorea erdi-irekia).
- F. LOREAK ZABALTZEN DIRA.
- G. LORE-OSTOAK ERORTZEN DIRA.

H. ALEA ARTUA DU.

- I. MUXIKA-ALEA LODITU EGITEN DA. Gereziondoari eta arananondoari lore-okotza

erortzen zaie.

- J. ALEA LODITZEN DA, gereziondoan eta aranondoan bakarrik.



A



B



C



D



E



F



G



H



I



J

go duten aleentzat mesedegarri biurtzen da, erorketa ori.

Arazoa beste leku batetik etorri liteke; berezkoa bezela dan erorketa oni eguraldi txarraren eraso erasten zaionean, ain zuzen; orduan, urteko emanaldiaren ondarena sortu liteke.

- **ELDUTAKO ALEAREN ERORKETA:** Alea arbolari lotzen zaion mugan, adarraren eta txortean artean, azaltxo bat sortzen dalako erortzen

da eldutako alea: azal eba-lea (ebakitzaillea) deritzaio azal oni.

Erorketa jatorra bezela artu diteke, beraz, erorketa au; arbolmota batzuetan bizkorragoa agertzen da erorketa modu au. Orrela erortzen dan alea, erortzean artzen duan kolpearekin, makestua edo matxuratua geratzen da, eta orregatik ez da ain itxura onekoa agertzen saltzeko orduan, eta, gordetzeko ere zailtasun aundiagoak izaten ditu.

— **USTEGABEKO ERORKETAK:**

- **Xomorro edo zorriengatik:** Xomorroek eta arbolari sortzen zaizkion gaitzak, ale-erortze beldurgarriak ekartzen dituzte. Alea arrak josten duanean, ale guztiak erortzea gerta liteke.
- **LEGORTE LUZEEGIA EDO EURITE GEIEGIA:** Legorte ondorengo euri-eraso gogorak.
- **Erauntsiak, ekaitzak, kazkabarra eta aize aundiak.**

1.7.3. Ale edo frutu batzuen kimika-gaiak

FRUTUA	Aztertutako jakia	Ura	Pro-teina	Aria (fibra)	Gozo-kiak	C. Vit. Ac. Ascor. mg.	m-c
SAGARRA	Azal eta biotz gabe	84	0,25	2,2	11,4	5	m
UDAREA	Berdin	83	0,25	2,5	10,8	4	m
MUXIKA	Azalarekin, ezurrik gabe	86	0,06	1,4	9,1	8	m
ALBERTXIKUA	Azalarekin, ezurrik gabe	86	0,60	2,1	6,7	7	m
ARANA	Azalarekin, ezurrik gabe	84	0,60	2,1	9,6	3	m
GEREZIA	Azalarekin, ezurrik gabe	81	0,60	1,7	11,9	5	m
MAATSA	Azalarekin, azirik gabe	79	0,60	0,9	16,1	4	m
LARANJA	Azalik eta azirik gabe	86	0,82	2	8,5	50	c

m = MALIKO-azidoa agertzen da nagusi.
 c = CITRIKO-azidoa (gazia) agertzen da nagusi.

1.8

ARBOLAREN BIZI-ALDIAK

Arbola zer dan esaten, IRAUNKORRA dala esan degu; onek esan nai du, urte askorako bizia duela.

Berari dagokion leku jatorrean arbolak dituan bizi-urteei, "bizi-iraupena" esaten diogu.

Arbola nola zaintzen dan, artatik zintzilik dago arbol orren bizi-iraupena; muxikaondo batek, nekez irauten du bizirik 20-25 urte baño geiago, eta, alderantziz, eunka urte dituzten oilondoak ba dira.

Arbol baten bizi-aldiko garaialdi bereziak auek dira:

- Gaztaroa.
- Etekin-aldiaren asiera.
- Bete beteko etekin-aldia.
- Zartzea.
- Zartasuna.

1.8.1. Gaztaro-aldia

Landarea aldatu edo jaiotzen daneanetik lore batzuk ematen ari diren dan bitartean igarotzen duan denboraldiari deitzen zaio arbolaren gaztaro-aldia. Landarea indar aundiz azitzen dan garaialdia da au. Generalki 2 urtetik 7 urteraiño luzatzen da garaialdi au.

1.8.2. Etekin-aldiaren asiera

Urte sail bat artzen du garaialdi onek, irutik amar urterako tartea; garaialdi ontan arbola etengabe azitzen dijoa, baiña, poliki poliki gero eta frutu geiago ematen asitzen da. Garaialdi ontan arbola zaintzen egiten ditan kastuak, ateratzen dan iraziazia baño aundiagoak izaten dira.

1.8.3. Bete beteko etekin-aldia

Arbolaren lasaitasuneko garaialdia da au. Arbol-landareak azitzen irauten du eta bere egurra berritzen du azitzen onekin, eta une berean, alea egoki emanaz irauten du. Arbola-mota nolakoa dan, eta nola zaitzen dan, artatik zintzilik dago garaialdi onen luzapena; argibide bezela sagar-rondoak aipatuko degu; sagar-rondoak 20-30 urte irauten du frutua ematen.

1.8.4. Zartze-aldia

Garaialdi ontan arbola-landarearen azitzea gero eta txikiagoa gertatzen da, lorea berriz, atekin-aldirik beteenean baño lore geiago eman lezake, baiña, etekin-neurria, aleak, gero eta txikiago; onekin batera alearen kalidadea kazkartu egiten da.

Urte mordo bat irauten du zartze-aldi onek, eta ondo ongarriz eta iñausketa jator batzuk egiñaz, etekin ona emanaz eutsi lezaioke arbolari garaialdi ontan.

1.8.5. Zartasun-aldia

Arbolaren bizitzako azken urteak dira zartasun aldia. Arbola ez da batere azitzen eta lore-ematea gutxitu egiten da, guztiz bukatutzeraiño. Arbol - muturra makurtzen dijoa adarrak austen dijoazkiolako eta orren ondorioa, arbolaren eriotza izaten da.

Laburpenez bezela auxe esan genzake arbolaren bizi-aldiei buruz:

- Etekiñik ematen ez duan edo etekin urria ematen duaneko garaialdi ori (gaztaroa + ete-

kin-aldiaren asiera), aalik eta lantzeko dauden aurrerapenekin, landare-mota egokiak aukeratuz, hormonak erabilliaz etabar, lortu liteke garaialdi au 2-4 urtetara laburtzea.

- Orain esan degunaren ondorio bezela, esango degu, arbolak duan bete beteko etekin-aldi ori askoz luzeagoa izan ditekeela; orri esker, landaretegiko kastuak azkar kitatu aal izango ditugu, eta, beste landare-motaren bat jarri nai bada ere (geiago ematen dutelako edo salmenta obeagokoak diralako), edota interesgarriagoa zaigun beste fruta-motaren bat jarri nai badegu, leengoak atera eta berriak jartzea erabaki genzake.